
independentziaren sua: hizkuntza eta kultura



Paulo AGIRREBALTZATEGI

Herri honek —Euskal Herriak— independentzia nahi al du?

Ez irakurri inkestak: Ehuneko zenbat agertzen den independentziaren alde. Laister kaleratuko da beste inkestaren bat, lehenengoa gezurtatuko duena.

Ez entzun, Independentzia! oihukatzen duten manifestazioei; taldetxo burubero bat besterik ez dela izan, deklaratuko dizu gobernadoreak, eta Estatuko komunikabide guztien bidez zabalduko.

Hala ere, inkestak hor daude; eta manifestazioak beharrezkoak dira. Baina horiek, gehienek ere, independentismoaren zabala erakutsiko dizue: azaletik.

Independentismoaren barnea eta sakona, berriz, beste nonbait bilatu behar dira. Azter zazu, noraino dauden jabeturik euskaldunak beren hizkuntzaren balio kulturalaz eta garrantzi nazionalaz; nolako indarra duen euskararen eta euskal kulturaren defentsarako mugimendu herritarrak: zein den horiek baieztatze, berreskuratzeko, zaintzeko eta lanitzeko ekina.

Hor dago inkesta eta oihu guztien neurria. Horregatik, horretxan kon-

tra botatzen dute beren eraso PSO Eren Madrilgo Gobernu burutsu eta maltzurak eta horrek Euskal Herrian dituen morroinek. Horiek badakite non dagoen independentismoaren muina.

Bide luzea da independentziarena, edozein Herrik urratu eta ireki behar duena. Lehen ametsetatik hasi eta independentzi eguneko festaraino? Ez, askozaz luzeagoa! Independentzia fede izatetik kultura izateraino.

Ametsetik festara

Herriaren independentziak aurrenik hartzen duen forma ametsarena da. Telesforo Monzonek irudi biziz deskribatzen zuen amets hori: «Aurrera, enbaxadore jauna!»

Euskal moneta, euskal Konstituzioa, euskal harmada, euskal polizia aduanak zaintzen, euskal pasaportea munduan zehar ibiltzeko... Guzti hori da Euskal Herriaren independentzia amesten duen abertzalearen ametsa. Zalantzarik gabe, guzti hori dago manifestazioetan Independentzia! oihukatzen dutenen buruetan.

Hortik festara, ordea, latza eta bihurria izan ohi da independentziaren

bidea: hilak, gartzelatuak, atzerritatuak; burrukak, etsialdiak, aurrera-kadak eta atzerakadak... eta azkenik, garaipena!

Bitarte horretan, batzuren amets hura Herriaren aukera eta erabaki bihurtuz joan da, eta politikaren gorputza hartuz. Azkenik, estatu juridikoaren forma lortzen du: Herriaren independentzia juridikoa, Estatu eta «subiranotasuna» edukitzean baita-tza gaur.

Bide latz horren ondoren, independentzia lortu da. Berreskuratu! Hortik aurrera, festa dela dirudi independentzia. Independentziaren eguna! Urtero ospatuko da hortik aurrera ta oroigarriak eraikiko zaizkio eta kaleak eta plazak eskainiko Herriaren independentziari.

Ospatu egiten da independentzia.

Independentzi aktak jartzen dio koroa aspaldiko ametsari. Horren bidez aldarrikatzen da Herriaren independentziaren berri ona. Baina independentzia juridikoa besterik ez du baieztatzen aktak. Independentzia formula!

Independentziaren obsesioa

Esperantza hura fede bihurtu da orain; independentzi akta bera da kredoa. Fedea, berriz, aitortzekoa da. Era berean, etengabe aitortu behar da independentzia: «Herri independentea gara!» Urtero, horren eguna ospatzean, agintariek eta prentsak, denek, handikiro egin beharko

dute aitortpena, eta deklarazioak errepikatu.

Baina laister festaren poza bildur-
rrekin nahasten da. Independentzia
galtzearen bildurrak inguratzen du
independentziaren festa. Ospakizun
zena, defendakizun bihurtzen da. Eta
manifestazio militarren kutsu han-
diagoa hartzen dute independentzi
egunek, herri festarena baino.

Obsesio bihurtu da orduan inde-
pendentzia. Independentek garena
aldarrikatzeagatik eta errepikatze-
agatik, ordea, ez gara independente-
agoak; ez eta harmada harroagoa edu-
kitzeagatik. Harmadaren eskuetan
egon ohi da estatuaren lurralde-mu-
gak zaintzea; baina harmadaren gain
dagoen independentzia ez da ametse-
tako independentzia hura; ez dago
ospatzerik.

Herri-independentzia politikoa,
berri, gauza oso hauskorra da, inde-
pendentzia ekonomikoan oinarritzen
eta egituratzen ez bada. Zer da, bai-
na, estatubarruko eta estatuarteko
independentzia politikoa, multina-
zionalen jokoaren menpe baldin ba-
dago?

Bisak, aduanak, produktuen ba-
bes-legeak, espiak eta kontraespiak...
dira orduan independentziaren iru-
dia.

Independentzia kultura bihur- tzen denean

Herria bere nortasunaz jabetzetik
eta hori berreskuratzeke eta lantzeko
borondate politikotik abiatzen eta
mantentzen denean independentzia,
orduan kulturazko edukina hartzen
du horrek. Independentzia amestua,
ospatua edo defendatua ez da beneta-
koa, kultura bihurtzen ez den bitar-
tean. Kultur independentziaren bidez
bakarrik sendotzen eta sakontzen da
Herriaren independentzia juridikoa,
politikoa, militarra nahiz ekonomi-
koa.

Kulturak —eta bereziki kultur sis-
tematan beinena— den hizkuntzak—
biltzen du Herria, barrura begira, eta
bereizten, kanpora begira. Bere bu-
ruaren jabe den eta bere nortasun
kulturazkoa lantzen duen Herria ba-
karrik izan daiteke gaur benetan «bu-
rujabe», independente.

Independentzia juridikoa —Aktan
deklaratzen dena— forma hutsa da,
ondorioz bere erakunde juridiko eta
legezkoen hornitzen ez bada estatu,



berria: hau da, bere instituzio- eta le-
ge-kultura lantzen ez duen bitartean.

Herriaren independentzia politi-
koak Hizkuntz politika eta kultur po-
litika independentean hartzen du
bere oinarri sakonena eta finkoe-
na.

Independentzia ekonomikoaz hi-
tzezingo bada gaur, makroekono-
miaren lege eta jokoen azpitik, bere
mikroekonomi egiturak eratu eta in-
dardu behar ditu Herriak.

Bere kultura eta hizkuntza ditu
abiapuntua, indarra eta bizigarria,
independentziaren bidetik doan He-
rriak. Haien berreskurapena eta lan-
tzea dira independentzi bidearen au-
rrerapenaren neurririk beinena. He-
rriaren kultura-hizkuntzetan joan be-
har du batez ere mamituz indepen-
dentziak eta horren aldeko burrukak.

Independentziaren akta lortu duen
eta horren eguna ospatzen duen He-
rriak, hura «beteaz» joan behar du,
deklaraziotan eta aitortpenetan geldi-
tu gabe. Bete, berriz, Herriaren kul-
tura eta hizkuntza landuz, indartuz
eta hedatuz, betetzen da funtsean in-
dependentzia.

Herriaren kulturaren eta hizkuntzan
oinarritzen eta mamitzen den inde-
pendentzia ez dago defentsiba hu-
tsean; horregatik ezin gaitzek bat
etorri hizkuntzazko eta kulturazko
«garbizalekeria» porrokatuaren ba-
besean Herriaren independentzia kul-
turazkoa zaindu nahi dutenekin. Ire-
kia eta kreatzailea bait da bere dina-

mikaz kultura. Eta hori indartuz
doan neurrian, joango dira sortuz
Herriaren independentziarako bide
berriak eta zabalduz horren barru-
tiak.

Kulturazko independentziaren de-
fentsarik onena, berriz, ez da mugak
eta hesiak gogortzea eta handitzea,
eta bai hizkuntza eta kultura barrutik
sendotzea, lantzea eta hedatzea.

Euskal Herria independentea iza-
tea —egitea— nahi al dugu? Ez nahasi
burua, inkestek nolako ehunekoak
ematen dituzten edota manifestazio-
tan zenbat oihukatzaile ateratzen di-
ren.

Amet, burruka, festa, aldarrika-
pen, beldur, obsesio guztien azpitik,
bere hizkuntzari eta kulturari heltzen
badie bakarrik suztatu ahal izango
du Herri honek independentziaren
sua.

Hizkuntz eta kultur burrukak eutsi
diezaioke independentziaren aldeko
burruka luzeari. Eta hori festa bihur-
tuko denean, EUSKARAK eta EUS-
KAL KULTURAK mantenduko
dute, haren aldarean garra etengabe
piztuko duen sua.

«Euskadi independentea, sozialis-
ta, batua eta euskalduna» eskatzen
eta aldarrikatzen dugu. Erne! Ez da
sekula burujabe ez independente
izango, euskalduna ez bada.

Sloganeke lehen «adjektiboa» az-
kenekoan bihurtzen da «substanti-
bo». ■